



JAKINTZA

LEIZ

Gipuzkoa'ko zenbait erriren antzean, txit aldatua dugu Errenteria. Kostako zaio antzematen, luzaroan erritik urrun izan denari; ain da, itxuraldatua.

Barruan, itota bezala aurkitzen diren, lehenagoko kale zaharrak ez izatera, erriratua denik ere ez luke uste izango. Eskerrak, gau ilunean ba dator, poliki argiturik agertzen zaigun eleiz dorre zorrotz, begi bakarrak, ongi etorria egingo diola...

Erruz azia dugu, ibai ertzeko gure erria. Inguruko alda-pa ta malkarretan goruntz eginik, gainezka agiri da. Ez dugu orain, mojetako kaxkora igo ta erria oinetan ikusterik. Ez dezakegu, inguruaz jabetzeko ikuspegi egokirik aurkitu.

Lehenagoko erreneriarrak, gutxitxo aurkituko ditugu bere barruan, gainezka egindako etxeetan, jendetza ederrik bizi danarren. Giroz aldatua dela, esan beharrik ez. Baina... ainbeste piztua den erria, jakintzaz ere obekiago jantzia ote?... Lehen baino, toki gehiago utzi ote diogu, erri baten goitasun ta gaitasuna diren kulturgintzari?... Ez noski.

Egia da, guraso ta laguntzaileen izerdiarekin irazitako Ikastola bikaina, arro erakutsi genezakela. Moja ta praileak ere, berri ta aundituak ditue beren ikastetxeak... Erdi mailako Ikastetxe ederraren jabe gera, Galtzarabordako goinean... Don Bosco ere, guztiontzat izanarren, gure barrutian aurkitzen da...

Alaz ere, ezin gehiegi poztu. Aurtxo, neska-mutiko ta gaztetxoak ezi ta jakintza bidean jarri ditzakegu; baina, gero zer?... Nun ote, guzti oen etorkizuna?...

* * *

Oraintsu ikusia dugu. Kulturgintzan bikain jokatzen duten Ereintza'koak euskal-astea ospatu zuten; ta, berotasun gutxitxo aurkitu zutenik, ezin ukatu.

Andra Mari Abesbatzak, berebiziko Musikaste goitarra eskaini zigun, euskal musikolari zen Ravel ospetsuaren omenez. Ta, Eresbatzarekin asiera eman, Ziburu'ko alkattea ekarrerazi, izlari gorengo ta inguruko talderik ospetsuenak ekarriagatik, etzuen zegokion ainbateko oihartzunik lortu. Esan beharrik ez, poz-pezik txastatu genituela; haina, lotsaturik, betilun... Nun geldituak ote ziren erreteriarrak, eta erreterikoak?

«Erreteriarrak merezi ez bezalako abesbatza diagu», esan nien minduta, ene laguneri.

«Ez dugula merezi?...» asarre ekin zidaten berak niri. Baina ni, nerean. Guzti oiek gertutzeko, ainbat lan artu zuten langile porrokatuak, bai nituen gogoan. Ez ahal zuten ba, beste saririk merezi?...

Opor aldietan baizik ikusten ez ditugun ikasle garaienak gurekin izatera, besterik gertatuko zela uste dugu. Umezurtz gelditzen baita, besteak bezala gure Erretereria, gazte talderik urduriena, jakintza egarriz erbesteratzean. Bultzada ikusgarria izando lukete, gogo biziz lanean jo ta ke, ari diren bakanak. Aitzindari ikusiko genituzke, etxea ba lute kabi...

* * *

Baina, orretarako, Ikastetxe Nagusia, Unibertsitatea behar. Zertan ote, betiko gure ametsa?... Diotenez, lortzeko garai egokia omen... Zer dagi ba, orretarako aspaldi izendatua izan zen batzordeak?... Noizean behin—gutxitan, batzartu izan dela dakigu; bertan goxo ere dela, ezer askorik egin gabe. Bultzada gogorra eman behar genioke. Ez da, inolaz ere, basoko xixak bezala goizetik gabera sortuko. Txaldandurik ba dira, indarberritzea dagokigu. Norkeriak baztartu, ta guztiok elkaturik, lanari ekin ta jarraitzea dagokigu. Ereindakoa baizik, ez dugu uztatuko.

Ziur egon, gainera, ez digula inork, ezertxo ere musutruk emango. Oraindik orain esan digutenez, gipuzkoarrok omen gera aberatsenak. Lanabes, tresna ta landutako gauzak, ez ditu noski, guk ainbat inork sortu. Ta, guzti orren mamia jaso duten nagusi, bankuetxe ta aurrezkitegiak, jalgi ditzatela beharrezko dirutzak. Lehenago ere, gerria estutzen ohitua denak, aurrerakoak ere emango duelako. Sortu dirutzak, eskaini lurak eta irazi Ikastetxe Nagusia, Unibersitatea babestuko duten etxalde zabalak.

Zeharo beterik ikusten ditugun ardanegi, jatetxe ta jolastokiak bakandu genitzake. Unibersitatea lortzeak, guzti ori eskatzen digulako. Izatean, itzuliko zaizkie diru berriak. Onura bikaina dezakete geroago. Beste urietan jalgitzen direnak, etxean izango ditugu ta orduan. Baina, batez ere, erri baten goitasun ta gaitasuna erakusten duen jakintzaren jabe izango gera.

Biharko gizon-emakume jakintsuak ezik, ortik zehar dabilzan gure jakintsuak ere, gaizkatu ta bildu ditzakegu, ta behar ditugu. Beroien laguntzarekin, ta giro egokian, berriak sortuko direlako. Erreteriarra den Koldo Mitxelena, dut gogoan. Prantze'ko Sorbona'n lehen; Salamanca'ko Unibersitatean orain; Ipar Ameriketean gero... Ta, etxean noiz?... Gure-gureaz jarduteko era egoki ta patxarazkoan noiz?...

* * *

Oraintsu jakina dut jakin, laurogei urteren buruan, Bizkaitar sendagile batzak, euskara aintzakotzat artua duela. Gaisoen onuraz arduraturik, gure izkuntza erabili ta lantzeko asmotan dira. Ta, orain iru ilabete izandako lehen batzarrean, laister sendagile direnen berri pozgarria: Doktoratzeko tesia euskaraz egin ahal izateko, euskara gaitu ta jantzitzeko lanetan diardutela.

Orixe, berri atsegina. Orra, giro bikainean sortutako lehen emaitza. Zenbat onelako, Ikastetxe Nagusia, Unibersitatea lortzen dugunean?...